

DEGENERATUAK: AFEKTUEN PAISAIK

Ukipenezko ariketa genealogiko txikiak

Gonbidapen hau egiteko moduaz pentsatzen ari nintzela, eta guztiok oso ezagunak ditugun zenbait ideiaz gogoeta egiten nuela, esaterako ikusgarritasuna, kartografia, zaintzak, balioan jartzea, borrokarako estrategiak, desirarako politikak, transfeminismoak, migrazioaren borroka, sexu disidentziak, gorputzaren erresistentziak eta abar, jabetu nintzen jakina afektuen kartografia hori izan zitekeela gure elkarpuntua. Mapa nahita egindako topaketa politikoa dela ere pentsatzen nuen. Iruditzen zitzaidan mapa arma politiko oso boteretsua dela. Behin eta berriz pentsatzen nuen Audre Lordengan ere, eta nire buruari galdetzen nion ez ote genukeen ezinezkoaren bidetik joan behar. Mapa ugazabaren etxea eraikitzeke erabilitako tresna da. Mapa Abya Yalako azalaren kontrako armarik eraginkor eta odoltsuena izan zen. Bai, jakina, mapa desitxuratu, asmatu, fikzio bihurtu, esku hartu, deseraiki dezakegu. Galdera xumeago batetik abiatuz, sukalde kutsuduna agian, heldu nahi nioke egiteko ahalmena, egiten jakitea, borrokarako gogoaren ideia mandatuari. Nahi al dugu? Mapa bat nahi al dugu?


Ikusgarritasuna eta aintzatespena geure gorputzak, geure ekintzak, geure gaurko bizitzak osatzen dituzten afektuetako bi dira. Ezabatzea eta blokeatzea: gaur egungo gure arma subjektiboak. Ez dira inozoak. Egiten ditugun afektuzko neutralizazio ariketak dira, arauen barruan. Normaltasuna afektuen bidez adierazten da bizitzak ezabatuz eta gorputzen mugimendua blokeatuz.

Orduan, bururatzen zait zenbait ariketa genealogiko partekatzeraz gonbidatzen bazaitzetz, gure afektuen kontuak jorrazteko, —borrokari, erresistentziari, disidentziari, konplizitateari, lotsari, ahultasunari lotuak; normalizazio heterosexuala, patriarkala, amatasunezkoa eta biopolitikoak, zisexuala, kapazitista, irudi onekoa, arrazista derrigorrezkoaren aurreko eta kontrako afektuei lotutako kontuak—, balitekeela afektuen paisaia bat sortzea, guztioi buruz hitz egingo lukeena eta guztiok geure burua adierazita ikusiko genukeena.

Zer gertatu zer *Texto Yonkiren* ondoren toki mailan? Zer nolako tratua eman zigun farmakopornografia hegemonikoak gure erresistentzia post-trans-prosex-antikol-anti-arrazistari dagokionez? Halako galderak egin zizkidaten. Eta jabetu nintzen erantzuna ez dela "subjektu politiko berri"en zerrenda bat, aktibismo taldeena, eskolako kontzeptuena, edo alderdi politiko tradizionalen "agenda feministetako" borroka-estrategien edo ilusio-estatistiken zerrenda bat, edo trans pertsona patologizatuen laguntzarako lege berriak, edo GIBaren aurkako kanpainak, edo sexu disidentziaren aurka borrokan diharduten zenbait artista, edo Deleuzekin hasi eta bukatuko zuten zenbait testu, edo arrazakeria edo kolonien aurkako erresistentzia-katalogoa edo kolektibo antikolonialena, edo feminismo zuri edo ilustratuen kontrako kritikaren mapa, edo erresistentziaren kartografia. Eta erantzuna ezin zela adierabakarrekoa ere izan. Zenbait erantzun prestatu nahi baditugu, bizitzari, maitasunari buruzko zenbait kontu kontatu behar dizkiogula elkarri, sukaldeko errezetei, hormona dosiei, albo-efektuei, bazterketari, traizioari, poztasunari, partekatutako eta elkartasunezko esfortzuei buruzkoak. Mapa bat baino, elkarrekin marrazteko paisaia dela.

duen xara sacchi

#DEGENERADXS
duen xara sacchi



Aurreko urtarrilean Puerta espazioak#Degeneradxs jarri zuen abian Duen Xara Sacchi-ren eskutik, klase, arraza eta sexu- eta afektibitate-identitateen arteko harremana lantzen duten testu teoriko eta praktika artistiko feministetara hurbiltzeko tailerra. Hor, ibilbide bat egin genuen erresistentzia feministen eta dekolonialen praktiketatik, hainbat egileren testuekin: Gloria Anzaldúa, Monique Wittig, Paul B. Preciado, Judith Butler, Jack Halberstam, María Lugones, Valeria Flores, Trinh T. Minh-ha, Donna Haraway, María Galindo, June Jordan, Pedro Lemebel, Marlen Wayar, Susy Shock...

Orain, Puertak eta Histeriak indarrak bildu dituzte #Degeneradxs tailerra berriz egiteko eta areago sakontzeko. Duen Xara Sacchi artistak bi ariketa osagarri proposatu dizkigu afektuen paisaian egiteko, abenduaren 7tik 10era arte.

Alde batetik, Puertan izango dugun tailerlean, artistentzako autodefentsa transfeministako tresnak partekatuko ditugu, elkartasuneko estrategiak prestatzeko, hegemonikoak ez diren praktika artistikoen eta poetikoen jakintza sozializatzeak duen garrantzia onetsita. Era horretan, zabalkundea egiteko eta asaldatzeko hainbat gailu sortuko ditugu, tresna plastikoekin aritzeko eta pentsatzeko bestelako moduak hedatze aldera.

Bestetik, Histerian, paisaia polifoniko bat izango dugu: ariketa genealogikoak gure afektuen istorioei buruz, nahitaezko normalizazio heterosexual, patriarkal, amatar, biopolitiko, cissexual, gaitzaile, sasoi oneko eta arrazistarekiko eta haren aurreko eta aurkako borroka, erresistentzia, disidentzia, konplizitate, lotsa, hauskortasun eta afektuari dagokienez, gu zer garen kontatuko duen eta gu garena kontatzen duela sentiaraziko digun afektu-paisaia sortu ahal izateko.

#DEGENERADXS
duen xara sacchi

TAILERRA

Erresistentziako transpoetikak

PUERTA

Zabalbide 17

Ekintza poetiko bat bukatu gabeko esku-hartze bat da, arlo sinbolikoan zezelka. Irekitzeko, errepikatzeko eta desberdintzeko ekintza bat da. Irudizkoaren artifizioak mugiarazteko ekintza bat da. Egiten jakiteko eta esaten jakiteko performatibitatearekin lan egiten duen ekintza bat da, baina ez da ixteko ekintza bat. Apelatzen duen, esaten duen ekintza bat da, baina ez du ezinbestez izendatzen. Transpoetika prostetika bat da, eta erretorikaren forma garaikideei -adibidez, hip hopari- dagozkien gailu ugariak, tradizioz femeninotzat hartutako egintzak -adibidez, paperezko loreak egitea amabirjinarentzat-, antzinako praktika narkotikoak edo neoliberalak, idatzizko hitzaren gailuak, tatuajea, poza, eta bestelakoak hartzen ditu barne. Transpoetikak imajinario somatopolitikoetan hartzen du parte, hau da, bizirik egotera edo amodioz hiltzera behartzen gaituzten fikzioen imajinarioetan.

1. saioa. Tailerra.

ASTELEHENA, ABENDUAREN 7A

16.00/20.00

[Degeneradak](#) tailerreko [lehen saioan](#), erresistentzia feministen eta dekolonialen praktiken kartografia egin genuen. Bigarren saio honetan, geure praktika artistikoen eta poetikoen artxiboa eratzen duten genealogia horietan aktore gisa esku hartzen saiatuko gara. Jakintza horien agentziamendu kolektiboaren aukera aztertuko dugu, geure praktikei legezatasun soziala emateko eta, era horretan, genealogia kritiken memoria kolektiboa ematen ikasteko. Zertaz ari gara erresistentziaz ari garenean?

2. saioa. Ekintzak.

ASTEARTEA, ABENDUAREN 8A

16.00/20.00

Erresistentziako praktika poetikoak: Artistentzako autodefentsa transfeministako tresnak partekatuko ditugu, elkartasuneko estrategiak prestatzeko, hegemonikoak ez diren praktika artistikoen eta poetikoen jakintza sozializatzeak duen garrantzia onetsita, era horretan, zabalkundea egiteko eta asaldatzeko hainbat gailu sortzeko, tresna plastikoekin egiteko eta pentsatzeko bestelako moduak hedatze aldera.

[Izena emateko](#)

#DEGENERADXS
duen xara sacchi

PAISAIAK AFEKTUEN PAISAIA BATEKO ARIKETA GENEALOGIKO TXIKIAK

HISTERIA

Cortes 29-31,4F

1. saioa. Barneko saioa.

ASTEAZKENA, ABENDUAREN 9A

Sorkuntza eta kutsatzeko barneko tailer honetan, gonbidatutako artistak, ekintzaileak, kazetariak eta poetak bilduko dira, betiere, trans-feminismoek eta praktika artistikoei toki nagusia hartzen badute beren jardunean, edo praktika bat badira berez.

William Kentridgek "Lesson of drawing nº one" lanean dioenez, marrazten edo itzalei forma ematen hasteko -edo, beharbada, itzalen artean ibiltzeari ez uzteko-, hauxe behar da: ergel samar izan, irudiaren gehiegizko zehaztapena kontuan izan, kontra-argudioak prestatu, ziurtasunaren aurka jarri (argudio honen aurkako kontra-argudiorik ez egin), epistemologia praktikoa sortu, eraldatzeko performanceak, jakintzaren itzalak ikertu, eta kolonialismoaren aurkako matxinaden historia labur bat izan beti eskura. Gure lanean, irakaskuntza horiek guztiak betetzen saiatuko gara, artistak egindako ohartarazpen nagusia aintzat hartuta: estudioaren eta munduaren artean, itzal artean gaude, sortzen.

2. saioa. Jendaurreko esku-hartzea.

OSTEGUNA, ABENDUAREN 10A

19:00 Degenerad*s.

Afektuen paisaiak Andrea Momoitio, Kattalin Miner, Zuriñe Mbaztan, Txaro Arrazola eta Natalia Gardeazabalekin.

Gorputz-aztarnen, itzalen, arrasto materialen, bizitza-bilbeen, grafien paisaiak, aldi bereko ahots asko dituen leku bat irudikatzen, gorputzaren, begiraden, praktika politiko eta artistikoen eta generoen fikzioak behin eta berriz gainazpikatzen dituzten tentsio, erresistentzia eta praktikekin.

19:30 Hizketaldia Guerrillas Cotidianas taldearekin.

Praktika, esperientzia, eta pentsamendu feministak eta prozesu artistikoei emandako markoak abiaburutzat hartuta, Guerrillas Cotidianas taldek galderak egin nahi ditu bizitza eta arauaren artean dauden loturei, elkarguneei eta kontraesanei buruz. Taldeko kideek Histeria Kolektiboan (Bilbo) eta Paraíso L.C. espazio artistikoan (Oviedo) egin duten gogoetazko egoitzan -eta disidentzian- landu dituzten gaiak aurkeztuko dituzte.

21:00 Magmadam-en kontzertua.

Energia, gorputzak, zarata.

#DEGENERADXS
duen xara sacchi

Gonbidapen hau egiteko moduaz pentsatzen ari nintzela, eta guztiok oso ezagunak ditugun zenbait ideiaz gogoeta egiten nuela, esaterako ikusgarritasuna, kartografia, zaintzak, balioan jartzea, borrokarako estrategiak, desirarako politikak, transfeminismoak, migrazioaren borrokak, sexu disidentziak, gorputzaren erresistentziak eta abar, jabetu nintzen jakina afektuen kartografia hori izan zitekeela gure elkarpuntua. Mapa nahita egindako topaketa politikoa dela ere pentsatzen nuen. Iruditzen zitzaidan mapa arma politiko oso boteretsua dela. Behin eta berriz pentsatzen nuen Audre Lordengan ere, eta nire buruari galdetzen nion ez ote genukeen ezinezkoaren bidetik joan behar. Mapa ugazabaren etxea eraikitzeke erabilitako tresna da. Mapa Abya Yalako azalaren kontrako armarik eraginkor eta odoltsuena izan zen. Bai, jakina, mapa desitxuratu, asmatu, fikzio bihurtu, esku hartu, deseraiki dezakegu. Galdera xumeago batetik abiatuz, sukalde kutsuduna agian, heldu nahi nioke egiteko ahalmena, egiten jakitea, borrokarako gogoaren ideia mandatuari. Nahi al dugu? Mapa bat nahi al dugu?

Ikusgarritasuna eta aintzatespena geure gorputzak, geure ekintzak, geure gaurko bizitzak osatzen dituzten afektuetako bi dira. Ezabatzea eta blokeatzea: gaur egungo gure arma subjektiboak. Ez dira inozoak. Egiten ditugun afektuzko neutralizazio ariketak dira, arauen barruan. Normaltasuna afektuen bidez adierazten da bizitzak ezabatuz eta gorputzen mugimendua blokeatuz.

Orduan, bururatzen zait zenbait ariketa genealogiko partekatzeraz gonbidatzen bazaituztet, gure afektuen kontuak jorratzeko, —borrokari, erresistentziari, disidentziari, konplizitateari, lotsari, ahultasunari lotuak; normalizazio heterosexuala, patriarkala, amatasunezkoa eta biopolitikoak, zisexuala, kapazitista, irudi onekoa, arrazista derrigorrezkoaren aurreko eta kontrako afektuei lotutako kontuak—, balitekeela afektuen paisaia bat sortzea, guztioi buruz hitz egingo lukeena eta guztiok geure burua adierazita ikusiko genukeena.

Zer gertatu zer Texto Yonkiren ondoren toki mailan? Zer nolako tratua eman zigun farmakopornografia hegemonikoak gure erresistentzia post-trans-prosex-antikol-antiarrazistari dagokionez? Halako galderak egin zizkidaten. Eta jabetu nintzen erantzuna ez dela "subjektu politiko berri"en zerrenda bat, aktibismo taldeena, eskolako kontzeptuena, edo alderdi politiko tradizionalen "agenda feministetako" borroka-estategien edo ilusio-estatistiken zerrenda bat, edo trans pertsona patologizatuen laguntzarako lege berriak, edo GIBaren aurkako kanpainak, edo sexu disidentziaren aurka borrokan diharduten zenbait artista, edo Deleuzekin hasi eta bukatuko zuten zenbait testu, edo arrazakeria edo kolonien aurkako erresistentzia-katalogoa edo kolektibo anticolonialena, edo feminismo zuri edo ilustratuen kontrako kritikaren mapa, edo erresistentziaren kartografia. Eta erantzuna ezin zela adierabakarrekoa ere izan. Zenbait erantzun prestatu nahi baditugu, bizitzari, maitasunari buruzko zenbait kontu kontatu behar dizkiogula elkarri, sukaldeko errezetei, hormona dosiei, albo-efektuei, bazterketari, traizioari, poztasunari, partekatutako eta elkartasunezko esfortzuei buruzkoak. Mapa bat baino, elkarrekin marrazteko paisaia dela.

duen xara sacchi

#DEGENERADXS
duen xara sacchi

FUTURO

ARDE

684 — UNIDAD FRENTE A LOS ENEMIGOS DE CLASE
Órgano del PCE(i) provincial de Barcelona del
1968-1969: 6 n

685 — UNIDAD Y LUCHA EN M...
Periódico de los obreros de M...
1973: 1 n

686 — UNIÓN OBRERA
Órgano de la U...
1973: 3 n

UNIÓN OBRERA
Comisión obrera del
(Barcelona)
1968-1969: 4 n

688 — UNIÓN JOVE
Portaveu de l'org...
1976: 1 n

689 — UNIÓN
Órgano de la U...
1946: 1n*

690 — ¡¡UNIÓN!!
Periódico de l...
1973: 1 n

691 — UNIÓN ESPAÑA

738 — ZER EGON
Hoja informativa
Órgano de la dirección del Movimiento Comunista Vasco (Komunistak)
1970-1971: 14 n

739 — ZORRO, EL
(Barcelona)
1974-1975: 2 n

740 — ZUTIK
Para la construcción del trabajo asalariado y la
mercancía
ETA 1975: 1 n
1971-1972: 2 n

694 — UNIÓN OBRERA
ZUTIK! Periódico de la clase obrera.
Gora Euzko Langileak
1967-1969: 16 n

695 — UNIÓN OBRERA
ZUTIK! Periódico de la Comisión Obrera
Órgano del Comité Central de ETA VI
1968: 1 n
1971-1973: 2 n

Publicación del Comité de Relaciones o Estudios
d'An...
1970-1971: 1 n

696 — UNIÓN OBRERA
Publicación del marxista-leninista de la Freballada (Bar...
(Perpinyà)
1973-1975: 5 n

UNIÓN OBRERA
Portavoz de l...
Órgano del Comité Regional de Asturias del PCE (1)
1973: 2 n

UNIÓN OBRERA
Órgano de las secciones comarcals de MSC
nacional del PCE (m-l) Inter...
s.d.: 1 n

F.E.
[Falange Española]
s.d.: 2 n

FEDERACIÓN
Portavoz de l...
1976: 1 n

FENT CAM
Marxista-leninista
1976: 1 n

F.I.D.
Fets.
1970: 3 n

F.I.O.P.
Full d'informació política
1972-1973: 2 n

F... ROJA
1971: 1 n

Comité Nacional de la
Federación de los estudiantes marxistas-leninistas
la Facultad de Ciencias (Barcelona)

UNIVERSIDAD POPULAR
Órgano de la Federación Universitaria Democrática Española de Cataluña
1972: 1 n

Hoja informativa de la FUDE de Cataluña. Miembro del FRAP
s.d.: 1 n
[1974]: 1 n



estoy en el mundo

TODOS LOS TRABAJADORES

perzoros

condicionados

naras

poetas

Colonial y el mío -
-+ werpo y el mío -

#DEGENERADXS
duen xara sacchi

-DUEN XARA SACCHI

duen xara sacchi (Aguaray, Argentina). Artista bisuala, ikertzailea, koreografoa eta ekintzailea. Organikotasunetik harantz doan espazio gisa hartzen du gorputza, adierazten den eta agertoki autobiografikotik indartu daitekeen artxibo modura. Bere ikerketan, historikoki biografia batzuk jazartzeko eta patalogizatzeko erabili izan diren hainbat katalogo identifikatzen eta desegiten ditu, eta gorputz indigena nabarmentzen du bereziki, gaur egungo subjektibizazioko arketipoak azaltzen dituelako. MACBA - Bartzelonako Arte Garaikideko Museoaren PEI - Ikasketa Independenteen Programan (2014-2015) hartu du parte, eta ekintzak, egoitzak eta bere lanaren aurkezpenak egin ditu, besteak beste, Artelekun (Donostia-San Sebastián, 2013), La Taller-en (Bilbo, 2013), L'Estruch-en (Sabadell, 2015) eta Tabakalera (Donostia, 2015).

-GUERRILLAS COTIDIANAS

Guerrillas Cotidianas taldea 2011. urtean sortu zen. Elkarri lotuta dauden feminismo eta kultura esparruak lantzen dituzten bi ikertzaile eta ekintzaile hauek eratzen dute: Jara Cosculluela eta Blanca Ortiga. Guerrillas Cotidianas taldeak bere burua eraiki eta hortaz hausnartu nahi du, arlo diskurtsibo eta esperientzialetik, beharizan berriak eta agortutako lekuak behatuz -baztertuta edo erdigunetik aterata dauden identitateak barne hartzea eta irekitzea sustatuz-, eta ikuspegi kritiko eta erne batetik ikertuz artearen esparruak, praktika kulturalak eta feminismoak.

-MAGMADAM

Magmadam bikote irekia azterketan - ikerketan aritzen da, gorputzetik eta soinetik abiatuta. Lan-prozesuan, energiak, trantsitoeak eta bere ezaugarrien eraginak - elkarguneak hartzen dute parte. Ekintza - erreakzioa lantzen ditu inprobisaziotik eta inprobisazioraino, bai eta eraikuntza, egitura eta ikus-entzunezko ingurunerik hurbilena ere. Bere praktikan beti agertzen da aurrez ezarritako formen de-konstrukzioa.

-PUERTA

PUERTA kultura-gunea 2013an sortu zen, eta Rosa Parmak, Laura Fernández Condek eta Jorge Núñezek kudeatzen dute. Alde inter-espazial bat du, muturrekoa eta teknologikoa. Bertan egiten dira tailerrak, lan-saioak, topaketak, film-proiektzioak, eztabaidak eta proposamenak. Proposamena. Euskarriko eta ikerketako_ildoak nahasi ohi dira: marrazkia, ikus-entzunezkoak, pintura, kontrakultura, ehunak, idazketa, artistaren figura, saiakera, materia, diskurtsoa, prozesua.

-HISTERIA

Histeria Kolektiboa komunikazioa – kultura – gizarte eraldaketa ardatzean lan egiten duen kultur elkarte da. Ikus-entzunezko eta kultur sorkuntzazko egitasmoak eta egitasmo grafikoak egiten ditugu.

Bilboko San Francisco auzoan, #Karpinterian lan egiten dugu; bulego eta egongela arteko zerbait da, eta han sortzen, laguntzen eta erakusten ditugu zenbait arte-adierazpen.

